

Bazen behin Gaategiz Arteagako herrian...

Irakurzaletasuna bultzatzeko ikastaro bereziak antolatu ditu Udalak herriko gaztetxoentzako

Zihara Enbeita

Aspaldi-aspaldi Urdaibaiko Biosfera Erreserbako herri txiki batean, gaztetxoenen irakurzaletasuna bultzatu asmoz, tailer edota ikastaro bereziak antolatu zituzten udarako. Oihartzun handia izan zuen ekimenak eta herriko txikienek oso ondo pasatzen zuten berbekin jolasean.

Izan zitekeen, baina ez da kalabazan sartzeko moduko istorioa. Urdaibaiko herri txiki hori Gaategiz Arteaga da eta bertako Euskara Batzordeak irakurzaletasuna lantzeko ikastaro bi antolatu ditu uztailean. SIC kultur kudeaketa enpresaren bitartez, hain zuzen ere.

Oihane Bilbao eta Aitor Aurrekoetxe begirale edo irakasleen gidaritzapean, astelehenetan idazketa, ilustrazio eta irakurtzera animatzeko tailerrak antolatu dituzte Montorre herri ikastetxean. Sei eta hamahiru urte bitartekoei zuzenduta dago eta hogeitalau laguneko taldea osatu dute.

Lehenengo egunean koloretako liburu txikiak osatu zituzten, eurek asmatutako istorioekin eta eurek egindako marrazkiekin. Behin hori eginda, horman eskegi zituzten liburu guztiak, ipuinen ur-jauzia sortuz.

Bigarren egunean, osterak, kartelak egin zituzten. Talde bakoitzak gai bat aukeratu zuen eta gai horren inguruan denen artean kartela osatu zuten. Bakoitzak egindako marrazkiekin collage antzeko bat sortuz.

Astelehenetan txontxongiloak egin zituzten eta horien laguntzarekin kontatu zituzten istorioak. Bost bat minutuko antzerkia ere prestatu baitzuten. Datorren astetik aurrera, besteak beste, olerkiak landuko dituzte. Bilbaoren esanetatan, hitzekin jolastea da helburuetako bat. Errima duten hitzak bilatu beharko dituzte eta loturak sortu. Amaitzeko, olerki guztiak batuta ipuina osatuko dute.

Era batera edo bestera, istorioenganako interesa piztea da ikastaroaren jomugetako bat. Ipuinak idatzita daude, baina eurek ere asmatu ditzazkete beste istorio batzuk. Euren irudimena landu dezakete ikastaroan zehar.

Txikiak liburutegira

Hiru urtetik bost urtera bitarteko umeak astean bitan batzen dira udaletxeko batzargelan. Astelehenetan eta eguaztenetan, hain zuzen ere. Txikiak liburutegiara. Liburuekin jolasera izeneko tailerra prestatu dute eurentzako. Guztira, dozena bat lagun inguru batzen dira.

Ordubetez ipuinetako pertsonaia, istorio zein berbekin jolasean ibiltzen dira. Irakurzaletasuna landu bai, baina batez ere ondo pasatzen dute. Puzzleak, irudien dominoa... eta beste hainbat jolasen bitartez lantzen dute hiztegia. Ezer baino lehen ipuinen bat irakurtzen diete irakasleek. Normalean ipuin horiek aurretik ere ezagutzen dituzte. Edota hala esaten dute behintzat irakasleek galdetzerakoan. Aipatu ipuin hori ardatz hartuta jolas egiten dute gero. Bilbaoren esanetan, asko gustatzen zaie istorioak entzutea eta marrazkiak ikustea.

Txikienek oraindik ez dakite idazten, ezin dute eurek sortutako ipuinik idatzi, baina etengabe kontatzen dituzte eurei gertatutako istorioak. Aurrekoetxearen esanetan, entzun duten ipuinagaz lotutako zeozer kontatzeko joera izaten dute. Euren istorioak islatuta ikusten dituzte eta euren ikuspuntua ematen dute.

Gurasoentzako gida moduko bat ere banatzen dute era horretako ikastaroetan. Gaitegiz Arteagan oraindik ez dute egin. Bertan, ikastaroan zer eta zelan landuko duten ageri da. Etxean bertan ere irakurzaletasun hori elkarbanatu edota partekatu dezaten.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Busturialdeko beste edozein plazatan.